

LEXIKO-BERRIKUNTZAREN INGURUKO ZENBAIT OHAR-AZALPEN

Larraun-Lekunberri, 1986-X-24

Mikel Zalbide

0. SARRERA

1983ko Apirilean sortu zuen Euskaltzaindiak, Arabako Angoston egindako bere III. Jardunaldietan eta Iker Sailaren barnean, Hiztegitzinta Batzordea. Luis Mitxelena batzordearen buru izanik eta Ibon Sarasola buruorde, ondoko beste kideok osatzen dute ordudanik Hiztegitzinta Batzordea: Rikardo Badiola, Xabier Kintana, Luis Mari Mujika, Txomin Peillen eta Mikel Zalbidek. Euskaltzaindiak hiztegien alorrean zituen eginbehar zabalak ez ditu noski, batzorde honek, gaue-
tik goizera osotoro bete. Ez dut uste ordea, inoiz han-hemenka bestelakorik entzutea gertatzen den arren, hiztegi kontuan ere Euskaltzaindia geldirik dagoela edo astiroegi dabilela esatea kontu zuzena denik.

Batzorde honen idazkari-lanetan ibili naizen aldetik honako pauso hauek sentitu izan ditut, hiru urte t'erdiko ibilera honetan, funtsezkoen:

a) Euskaltzaindiak hiztegitzintzaren alorrean, bere luze-zabalean harturik, egin beharrak leuzkakeen ekintza nagusien zerrenda bat prestatu zen lehenik. Euskaltzaindiak berariaz aztertu izan ditu ekintza-asmu horiek Lekarozen, Bilbon eta Donostian eginikako batzar banatan, eta bere oinarritzko adostasuna agertua ere du einkizunen lehen hurbilketazko bilduma horrekiko.

b) Lan guztiak premia berekoak ez zirela ikusirik, eta ekintza batzuk berez besteen ondoan —ez aurretik edo aldi berean— egitekoak zirenaz jabeturik, bi fase edo epealdi ezarri ziren langintza guzti hori aurrera eraman ahal izateko. Bospasei urteko lehen epealdirako, honela, zuetariko askok ondo gogoan izango duzue-
nez honako eginbehar hauek finkatu ziren:

- Orotariko Euskal Hiztegia (aurrerantzean OEH).
- Lexikologi Erizpideen Finkapena (aurrerantzean LEF).
- Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistemakoa (aurrerantzean EEBS).

c) Orotariko Euskal Hiztegiari 1984ean bertan eman zitzaion behin-betiko abiada. Luis Mitxelenaren zuzendaritzapean eta Ibon Sarasola langintza osoaren arduradun eragile izanik, OEH programa aski bideratua dago jadanik eta, azken orduko atzerapenen bat gertatzen ez bada behintzat, ekintza sendo horren lehen

uzta (800 eta 1.000 orrialde arteko liburukia) berandu baino lehen eskuartean izatekoa dugu.

Hiztegitza Batzordearen epe ertain eta luzerako plana prestatzerakoan Orotariko Euskal Hiztegia egin eta argitaratze-lanari aitortu zitzaion erabateko lehentasuna. Arrazoi sendo eta ugariak zeuden orduan, eta egungo egunean ere ez dute nere ustez inolako balio-indarrrik galdu, lehenespen horren alde: bere lan-bolumen handia; euskaldungoaren erabilera zuzenerako sortuko duen emaitza osatua; gainerako hiztegi guztietarako jakiniturri nagusi izatea; ...

d) Lexikologi erizpideen finkapen-lana ere aurrera doa. Maileguzko hitzen idazkeraz argibide egokiak emanak ditu jadanik Euskaltzaindiak, hartarako aurre-lan ugariak pausoz pauso eta beharrezko zehaztasunez burutu ondoan. Horrezaz gainera LEF programaren bigarren urrats gisa, hitz-eraketazko baliabide desberdinen azterketari heldu zaio berrikitan. Lehen aztergai hitz elkartuak harturik lanean ari da talde eragilea joan den Apiriletik eta, horrezaz gainera, Ekainean egina du osoko taldeak, Beloken, aurtengo lehen jardunaldia. Bigarrenaren prestatuntza ere, Gabonak ingururako edo, bide onetik doa.

e) Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa (EEBS programa) da azkenik, bospasei urteko lehen epealdi honetarako, abiakizun dagoen ekintza bakarra. Hemen ere eman dira, hainbatean haztamuz eta aurre-lan gisa izan bada ere, lehen urratsak. Horrela:

– Euskaltzaindiak badu, 1986ko bere aurrekontuetan, eginbehar honi erantzuten hasteko berarizko diru-partida jasoa.

– Hiztegitza Batzordeak prestatua du gainera, 1985eko Uztailean Euskaltzaindiaren hileroko Batzarrean aurkeztu, eztabaidatu eta hein batean landuz, bilketa-lan sistematiko hori zuzen bideratzeko lanjardunaren oinarritzko eramoldezirriborrea. 1985eko Uztailaren 19ko fetxa daraman Hiztegitza Batzordearen txostenean azter dezake nolana ere, berri zehatzagorik nahi lukeenak, diodan guzti horren nondik norakoa. Orduko planaren arabera iritsia ere litzateke, hor nonbait, egungo euskararen bilketa-lan sistematikoari ekiteko garaia.

Norbaiti gogoak emana izango dio honez gero, eta ez arrazoirik gabe, galde-ka hastea: gauza guztiak bideraturik badaude, lan-programak finkaturik, dirubideak eskueran eta gizatalde egokiak osaturik edo erabidean, zer dela eta hasi behar dugu orain, hitzaspertuari ez baina lanari ekiteko ordu honetan, lexiko-berrikuntzaz gogo-jardunean? Ez ote litzateke hobe, behingoz, hizketak (ez nuke berriketa esan nahi) alde batera utzi eta isil-isilik lanean hastea?

Ez dut halakorik uste. Horra, dauden-daudenean, uste horren indargarri-edo ikusiabartzen ditudan arrazoibideak.

I. GOGOETA-LANA ZERGATIK

Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoari ekiteko premia dagoenik inork gutxik ukatzen du. Gai honi buruz gure artean jaulki izan diren eritzien bilduma labur bat prestatzen ibili berria naiz, eta ez azken-azken orduko eritziena soilik

gainera, eta badirudi puntu horretan bederen aski den adinako adostasuna dagoela euskaltzaleon artean: gure egoeraren berri jakin beharra dugu, ahalik era zehatz eta sistematikoenean jakin ere, bihar edo etzi inolako erabaki ganorazkorik hartu nahi bada. Ez dut uste, ordea, guztion arteko adostasunak puntu horretatik askoz harantzago doazunik. Litekeena da oker egotea, eta aukeran poztu ere egingo nintzateke egoera nik uste bezain iluna ez dela ikusiko balitz; baina ez dut uste. Hitz gutxitan esateko, denok edo ia denok sentitzen dugu bilketa-lan hori egin beharra dagoela; ez zait iruditzen inondik inora ere eritzi bateko garenik, ordea, bilketa-lan hori nork, noiz, nola eta zertarako egin behar lukeenaz. Balegoke beraz, horregatik bestegatik ez balitz ere, lehen begiratu batez lan mekaniko hutsa lirudikeen bilketa-lan horri ekin aurretik oinarrizko zenbait galderaz gogoeta egiteko arrazoirik aski.

Ez zait gainera iruditzen, eta horra bigarren arrazoibidea, egungo euskararen bilketa-saioa lexikografi lan hutsa denik. Hizkuntzaren hitz-altxorraz gainera bere eguneratze— edo modernizazio-arazoari heltzen dio aitzitik, bete-betean heldu ere, egungo euskararen bilketa-lanak. Lexikoaz edo hitz-altxorraz gainera hizkuntza osoaren eramoldea, gurasoengandik jaso dugun ondare horretarik seme-alaba edo ilobei zer bere hartan gorderik, eta zer berriturik, eskualdatu nahi geniekeen dago hor, funtsean, aztergai eta erabakizun.

Eta ez dut uste, azkenik, hizkuntzaren zaharberritzea dela-eta azken urteotan batzuk eta besteok agertu ditugun erizpide desberdinak, eta elkarri sarri asko egin dizkiogun gaitzespen mingotsak banan banako hitz-azterketa xotil batek ezabatu eta zurituko dizkigunik. Hizkuntzaren taxukera osoa da hemen, ahoskeratik hasi eta, gramatika-bideetan barrena, hitz-altxorerraino, oraingo hainbat berrikuntza direla-eta euskaldunok, ez euskaltzale asko— edo gutxi-jakinok soilik, auzitan somatzen duguna. Irudiaz baliatuz, urte-sasoi berrirako erosi nahi genituzkeen soineko edo jakzi-apaingarriak baino areago hanka-punttatik hasi eta kopetarainoko hezurdura osoa, bere buruari eutsi ezin izango ote dion bildurrez nabaritzen- edo dugun hezurdura, da hemen eztabaidagai daukaguna. Hortik datoz gure egonezin eta haserre-bideak, puntu jakin honi, horri edo harako hari bestek ematen dion konponbide ustez traketsetik baino askozaz gehiago. Eta guztiz onuragarria iruditzen zait, ondorioz, inongo puntu konkretu konpondu-asmoak behingoz alde batera utziaz arazoari bere osotasunean heldu nahirik gogoeta-lan oinarrizko honi heltzea. Gai honetaz, jakitez edo eskarmentuz, burualdea behin baino gehiagotan nekatu izan dugun lagunak bildu garenez, eta Euskal Herrian gaur egun gailendurik-edo dauden eritzi desberdin gehienetako partaideak ere tartean gaudelarik, badut itxaropen sendorik gogoeta-lan honek probetxuzko etekina emango duela.

II. ZENBAIT AUZIGAI

Badira noski, lexiko-berrikuntzaren alorrean ere, gaiari heltzeko saihesta eta ikusmolde desberdinak. Gehiago izango direla ahaztu gabe ere hiru ditugu hemen, funtsean, gure artean maizenik erabili ohi direnak. Labur beharrez hizkuntzalari-tzaren ikusmoldea esango diot lehenengoari, soziolinguistikoa bigarrenari eta hirugarrenari, hoberik ezean, Administrazioaren ikuspegia.

- Lehenengo ikusmoldea berrikuntza hori zein hizkuntz baliabidez mami-tzen ari denaz arduratu ohi da sarrienik, bide batetik edo bestetik sorturiko hizperriak noraino diren edo ez diren egokiak aztertzen saiatuz.

- Soziolinguistikazko ikusmoldeak aldiz hiztunak ditu, batez ere, kontuan: banakako hiztunak baino areago hiztun-taldeak, normalean. Hiztun-taldearen bizi-molde berriak hizkuntzaren eguneratze-kontuan zer-nolako eragina eta harreman-bideak dituen aztertu ohi ditu ikusmolde honek, sarri asko, batetik. Eta, bestetik, urliak edo sendiak sorturiko hizperriek hiztun-taldearengan zenbaterainoko onar-pena eskuratzen dutenaz arduratu ohi da berriaz.

- Hirugarren ikuspegiak, Administrazioarenak, xede nagusi bat izan ohi du maizenik: hizkuntzaren eguneratze-saio horiek garaiz eta zuzen bideratu ahal izateko baliabideak jartzea, Herri-Aginteak hartarako duen ahalmenaz.

- Hirugarren ikuspegi hau ezertan gutxietsi gabe ere lehenengo biak hartu-ko ditut soil-soilik, ondoko gogoetak egiterakoan, kontuan. Euskaltzaindiaren ezarpen-eremua, eta bere erantzunkizunak bide batez, batez ere lehenengo bi ikusmolde horietara biltzen direlako ustean egin ere egin dut mugaketa hori.

II.1. Maileguak bai/ez

Hizkuntzalaritzaren ikuspegitik badugu hemen euskaldunok, besteek bere-nean ere maiz asko izan ohi dutenez, aitatu orduko sua pizten duen gaia: euskaltzale eta are euskaldun-jende arruntaren arteko sesioaz eta haserre-bideaz ari naiz, noski, ez bestelako suaz. Hizkuntzak, orain punturarte debeku izan dituen (edota, nonahi bezala, hemen ere sortu berri-berriak diren) esparruetara sarbide izango badu, eginbehar berrirako egokitu egin beharko du, gutxi edo asko, bere burua. Eta egokitu, besteren artean, bere ohizko hitz-ondarea egokitu beharra izaten du halakoetan. Nola egin ordea, hartaraz gero, egokitzapen hori? Nola eguneratu bere ordurainoko hitz-altxorra, egungo behar berriei zuzen erant-zun ahal izateko? Hartarako baliabideak bat baino gehiago ditu euskarak, eta ezinbestean ez dago horrelakoetan beti bide beretik ibili beharrik. Hor ditugu nolana ere, bidezidor xumeagoak oraingoz alde batera utzirik, honako jokamol-de hauek:

- Hitzak erdaratik, maileguz, gureganatzea.
- Euskal hitz-eraketazko baliabideetariko batez hizperriak sortzea.
- Galtzeko zorian genituen behinolako hitzak berreskuratu eta eginkizun berriei erantzuteko berrezartzea.
- Bizirik eta sendo sustraituak ditugun ohizko hitzei esanahi-eremua zabal-du eta, lehendikakoez gain, edukin berriak txertatzea.

Ez dugu euskaldunok, bide hauetara jotzean, ezer berririk edo are bidegabe-korik egiten: besteek ere maiz-sarri jo izan dute antzeko larreetara elikagai horren beharrean sentitu izan direnean; eta orain bertan ere ez da hain zaila, begiak zabaldu orduko, auzo-hizkuntzetan bertan antzeko jokamolderik nabaritzen. Non sortzen da beraz, eta non sortzen zaizkigu guri batipat, direlako suak eta garrak?

Erabateko erantzunak berez duen sinplifikazio eta, ondorioz, oker-iturriaz jabeturik ere, ez da hain oker handia izango eztabaida, puntu honi gagozkiolarik, maileguzko hitzen inguruan sortzen dela esatea. Euskaldunok oso eritzi desberdinak —inoiz baino gehiagotan kontrajarriak— ditugu gure hizkuntzaren gaurkotze-lan osoaren baitan euskararen lexiko-berrikuntza nola egitea komeni denaz. Bai, egia da hori. Hori bezain egia ere da, ordea, zaharberitze-lan horretan maileguzko hitzei eman beharreko sarbidearen estu-zabalari dagozkionetan gaudela euskaldun eta euskaltzaleok, batez ere, elkarrengandik oso urrunduak.

Eztabaida hau ez da gainera, inoiz urak errota horretara eramateko joerarik ageri bada ere, azken bost edo hamar urteko kontua. Mende-hasieratik bertatik, lehenagoko iturrietara jo gabe, bekoki-bekokian daramagu denok, zeinek nabar-menago eta zeinek gozatuagorik, auzi horretan alde bateko ala besteکو partaide izatearen marka. Euskaltzaleen arteko eztabaida amaigabea izan da hau, eta ez liguke kalterik egingo gure aurrekoek gai honetaz idatzirik utzi dizkigutenak soseguz irakurri eta patxadaz ausnartuko bagenu. Axalgaineko aipamena baizik izango ez bada ere aizu bekik hemen, aldian aldikoak elkarrengana bildu eta alfabeto ordenan zerrendatuz, honako euskaltzaleon izenak gogora ekartzea:

- Euskaltzaindiaren sorrera-aldian Altube, Azkue, Campion-Broussain, Eleizalde eta Olabide.
- Gerraondoko baraualdi larri-estuan Krutwig, Orixe, Villasante eta Zaitegi.
- Eta azken 20-25 urteotan, izen gehienak tintontzian uzteko arriskua begien bistatik ezin apartatuz banabil ere, diodan eritzi sendo eta eragingarriak eskainiak dizkigutela Jose Basterretxea “Oskillaso”, Gaizka Barandiaran, Joseba Intxausti, Xabier Kintana, Luis Mitxelena, Luis Mari Mujika, Josu Oregi, Andoni Sagarna, Ibon Sarasola eta Anbrosio Zatarainek.

• Hainbatek eta hain denbora luzez eztabaidaturiko gaia orain, gauetik goizera, guztion gogo-betegarri izango den eran konpontzerik ez dagoenaz jabetzea ez dugu agian, gauzak dauden egoeran daudelarik, irabazpiderik urriena izango. Badago horretaz gainera zer ikasirik franko ere, baina ez nuke halere azpimarratu gabe utzi nahi alde bateko eta besteکو guduskak, guduak eta are gurutzadak ez zaizkidala egungo egoeran probetxuzkoegiak iruditzen. Auzigaiari inoiz edo behin konponbiderik aurkitzekotan hobe izango dugu nere ustez, beste hainbat puntutan bezala, gauzak desberdin ikusten eta sentitzen ditugula aitortu eta onartzetik hastea; eta behin hartaraz gero, gizalegearen oinarritzko arauak errespetatuz, nork geure uste-aburuen euskarrizat dauzkagun arrazoiak (handi nahiz txiki, sendo nahiz ustel) elkarri azaltzen saiatzea izango dugu korapiloa askatzeko modu bakarra.

Errakegia da alor honetan, inon errazik bada, elkarrekiko deskalkifikazioak jaurtikitzea. Zailagoa ordea, baina beharrezkoagoa ere bai, jatortasunaren eta erdalkutsuko berrizaleatasunaren arteko buru bien arteko ezkontzabideak, uztardurak edo konbinazio aproposak aurkitu eta, nork bere egunoroko jardunaren eredu, indarrean jartzen ahalegintzea.

Nik neuk ez nituzke behintzat, bapateko konponbide sinpleen artean, gai honetaz azken urteotan agertu diren kezak eta jarrerak besterik gabe ahaztutat emango. Maileguzko hitzen erabilerari dagokionez, horrela, hainbat eta hainbat

kezka agertu dira urteotan, behar den arretaz aztertu eta landu ez ditugunak. Partez bederen alea neuri jasotzea dagokidan neurrian ez nuke esan gabe utzi nahi itxuragabeko mailegu-uholdeari ikusi uste izan zaizkion ajeak aski kontuan hartzekoak iruditzen zaizkidala. Honako hauek, besteak beste, ez nituzke nik orain (ikusitakoak ikusirik) ez-ikusiarena egin eta alde batera utziko.

a) Exonormatibismoaren arriskua: gaztelaniarekiko mugaz haraindikoek frantsesarekiko? morrontza itxuragabea, beste hitzetan esanda.

b) Oraindainoko tradizioarekiko etena, eten beharrik ez zegokeen punturik xumeenetan ere.

c) Jakintzagai eta bizigune desberdinetarako terminologia teknikoak ohizko hiztegi arruntaren mirabe izan behar duela, eta ez alderantziz.

Erreparo horiek bere horretan onarturik ere maileguzko hitzen aldeko arrazoirik badagoela uste dut, eta arrazoi sendoak gainera. Ez dut uste ordea inork horien aldeko azalpen teorikorik eskaini duenik, eta horren premia egunetik egunera beharrezkoagoa sentitzen dut. Arrazoi horien bila hastekotan ez da agian biderik okerrena izango, iruditzen zaidanez, terminologia tekniko horiek ere beren xedeaz, eta begiz jotako hitzun-multzoaz aski maila desberdinekoak izan daitezkeela eta izaten ere direla gogoratzea, eta horrek berak matizazio-bide sendoa ezar dezakeela hitz horiei buruzko erizpideetan. Puntu hau luzeago landu beharra ikusten dut, nolnahi ere, eta oraingoz aipatu baizik ez dut egiten.

II. 2. Hizkuntzalaritza hutsaz kanpoko auzi-bideak

Ez dugu maileguen kontua ordea, ez eta hizkuntzalaritzazko ikuspegia ere, auzi-iturri bakarra. Neurri batean soziolinguistikaren ikuspegitik hurbilago dauden puntu banaka batzuk aipatu nahi nituzke hemen, zuen aurrean, eztabaidarako helduleku gertatuko diren itxaropenean. Horra, banan bana emanik eta berezko ordena logiko handiegirik gabe, burura datozkidanak.

II. 2.1. *Lexiko-berrikuntzazko sorkarien gizarte-onarpena*

Errazegi uste izan dugu askok, eta neure burua ez dut horretan besteena baino errugabeago ikusten, hizkuntzaren modernizazio-kontua lexiko-berrikuntza hutsezko arazoa dela. Eskarmentuak ezertarako balio digun neurrian garbi ikusten dugu ordea orain, egunetik egunera garbiago esango nuke, hizkuntzaren gaurkotzea ez dela urrundik ere lexiko-berrikuntza soila. Ez eta agian garrantzitsuena ere, erantsiko nuke nik —diodan azken honetaz zalantza ugaririk falta ez zaidan arren—, Eskoletako ikasle-irakasleen luma-ezpainetan, edota luze-zabaleko euskal komunikabide berrietako (bereziki ETBko) hainbat bikoiztaile-esatariren nahi eta ezinetan nabari diren eskasiak kontuan hartzen badira. Baluke puntu honek, gaurko aztergaiaren eremutik zertxobait aldentzen bada ere, Euskaltzaindiak hurrengo batean berariaz landu eta aztertzeke funtsik aski. Besterik da ordea, oraingoan, aipatu nahi nukeena: lexiko-berrikuntza ezin daiteke inoiz,

sarriegitan egin dugun bezala, jakintzagai edo bizigune berezietarako hitz-zerrendak prestatu eta, argitalpen-bide batez edo bestez, zabaltzera mugatu. Lexiko-berrikuntzazko ahalegin guztien iturburu eta azken xedea begian bistatik galdu nahi ez baditugu hitz horiek norentzat prestatzen ari garen aztertu eta sakonki landu beharra daukagu. Kasuan kasuko hiztun-taldeak hizperri-multzo bati eman-go dion edo ez dion onarpena da, nahi eta nahi ez, eztabaida guztiotan begien aurre-aurrean eduki behar duguna. Eta onarpen hori ez da, ezinbestean eta are gehienetan, hizkuntzalaritza hutsezko metro-patroiaz neurtzen: hitz berri jakin batzuk indarrean jarriko badira gizarte-onarpena eskuratu behar dute. Itxura hutsezko txorimalo indargabe bilakatuko dira bestela, luzaro gabe, ezer baino gehiago asmatzailearen beraren lotsagarri.

Hizperri baten gizarte-onarpenak, berriz, ondoko hiru baldintzok ditu nahi eta ez berekin:

- a) Hiztun-taldeak gogozko izan behar ditu sorkari edo mailegu berri horiek
- b) Ikasi egin behar ditu, gainera, eta
- c) Erabili egin behar ditu.

Hiru baldintza horiek —azken biak bereziki— betetzen ez diren artean ezin esan liteke gizarte-onarpenik eskuratua denik, eta hori gabeko berrikuntza-saioak herren dabiltza ondorioz, beren oinarrizko helburuari erantzun ezinik. Lexiko-berrikuntza nola egin behar litzatekeenaz batzuk eta besteok, norik geure erreze-ta egokiak golko-sakeletan ditugula, elkarren arteko eztabaidan gabiltzanean, eta bereziki garbizaletasunaren eta hizkuntza mordoilo-berrizalearen arteko zurrunbi-loan elkarri mokoka ari garenean, bagenuke goian esandako onarpen-kontu hori dela eta hainbat eztabaida “linguistikoa” alde batera utzi eta hizkuntz soziologia-ren ikuspegitik gauzak berraztertu eta argibide osatuagoz jarduteko beharra.

II. 2.2. *Lexiko-berrikuntza nork burutu behar lukeen*

Euskaltzaindiaren sorrera-aldian bertan garbi adierazi zenez (ikus bere arau-tegiko lehen artikulua, g puntua), erakunde honen zeregin nagusietariko bat hizkuntza gizarte-maila guztietan gai bihurtzeko lan egitea da. Euskararen gaurko-tze edo modernizazioa bete-betean sartzen da beraz Euskaltzaindiaren lan-esparruan; eta hor sartzen ere da, ondorioz, lexiko-berrikuntza bera.

Gogoeta-bilera hauetarako dei-idazkian ere argi asko azaldu eta gogoratu berria digu bestalde, Euskaltzainburuak, lan hori badela gure Akademiaren egite-koa: ez bere eskubidea soil-soilik, neurri batean bere eginbidea ere baizik.

Lexiko-berrikuntzaren alorreko kontu horretan Euskaltzaindia ez da gainera, bere sorrera-unetik gaurdainoko ibilera luzean, eskubide-eginbideen azalpen hutsean gelditu izan. Gerra-aurreko saioez gainera ⁽¹⁾ hainbat pauso emanak ditu Euskal-

(1) Ikus esate baterako, lehenengo-lehenengo unearen beraren adierazgarri, Euskaltzaindia (1921), “Itzbeñika” (índice de neologismos), in *Euskera*, 1919-20, II. zkia, 90-95 orr.

tzaindiak, azken 15 urteotan, jakintzagai eta bizigune derberdinetarako terminologiak prestatzerakoan. Ez ezinbestean arauzko erabaki bihurtu asmoz, baina bai guztion adierazgarri. Horietariko bat baino gehiago itzuriko zaidan arriskuaz ongi jabeturik ere, honako puntuok bederen gogorarazi nahi nituzke:

- Filateli hiztegia, 1973ko **Euskeran**.
- Merkatalgo izendegia, urte bereko agerkarian.
- Etxegintza eta arkitekturarako hiztegiaren gertuketa, 1974eko **Euskeran** adierazten denez.
- Zortzi urte arteko ikastola hiztegia, 1975eko **Euskeran** argitara eman eta, handik berehala, berarizko liburuska moduan kaleratua.
- Estatu izenak, 1975eko **Euskeran** adierazten den eran.
- Musika gaietazko hiztegi bati buruz ematen da, bestalde, 1976ko **Euskeran** argibide zenbait.

Lan horien onarpen-maila batetik bestera agitz desberdina izan bide bazen ere, aski den adinbateko erakusgarria iruditzen zait zerrenda labur hori (eta ez litzateke luzatzen ezina, hartara jarriz gero) Euskaltzaindiak gure hitz-altxorra eguneratu eta osatzeko kontuan aurrera eramán duen eta daraman ahaleginaren lekukotasuna emateko.

Jakina de gerora, 1981eko Abenduan Hondarribian egindako Jardunaldian, Euskaltzaindiak banaketa hirukoitz batez mugatu zuela, berari zegokion neurrian, euskal hiztegitzaren alorra.

- Euskal Hiztegi Nagusia (orain *Orotariko Euskal Hiztegia*).
- Hiztegi hiritar arauemailea.
- Espezialitate-hiztegiak.

Jardunaldi hartako aktan garbi adierazten denez, espezialitate-hiztegiak egitea ez da Euskaltzaindiaren lana. Honek ez du esan nahi, besterik gabe, sortarauetako bere jatorrizko eguneratze-xede haiei eta 1970eko hamarkadan, goian aipatu bezala, aurrera emandako pauso guzti haiei uko egin zitzaientik delako agiri horrekin. Euskaltzainburuak berak adierazi du gainera hainbat aldiz, eta gaur goizeko sarrera-hitzaldian azken aldiz entzuna diogu, eginbehar hori badela bere eginkizuna, gidaritza eta bateratze-ahaleginean bederen.

Ez dut uste inork gaizki hartuko didanik, dena den kontua hain garbi ez dagoela baldin badiot. Gauza ez txuri eta ez beltz denekoan bat etorriko gara gehienok, agian, baina kalterik ez liguke egingo denoi puntu horretaz argitasun handiagorik izango bagenu.

Nere uste sotilean, euskal hitz-altxorren berrikuntza-kontu honetan badugu euskaldunok oro har, eta bizibidez Irakasmunduan, Administrazioan edo Komunikabideetan dihardugun geroz eta gehiagok bereziki, gidaritza eta bateragune argi baten beharra.

Eta gidaritza hori, inolako zalantza-izpirik gabe, Euskaltzaindiari dagokiola uste dut. Honenbestez ez diot, eta aurrerago helduko diot berriro gaiari zehaztasun handiagoz, arau zorrotzen beharrea gauderrik nahi eta ez. Gidaritza behar da nere ustez, hori garbi daukat, eta gidaritza hori Euskaltzaindiari dagokio aurrez aurre eta bere osotasunean. Bide paraleloak era daitezke noski, eta halakorik aldarrikatzen duen euskaldun-jenderik ere ez da gure artean falta. Azken bide hori erro-errotik okerra dela uste izan dut nik, eta ez dut gaur ere eritzi aldatzeko arrazoi nahikorik ikusten.

II. 2.3. *Lexiko-berrikuntza noiz burutu behar den*

Ahalik hitz gutxienetan biltzen ahaleginduko naiz, bestela ere aukeran gehie txo luzatu naizenez, kontu honetaz dudana eritzi.

Euskal hitz-altxorren berrikuntza-kontuan ez da gaur-gaurkoz hitzei banan bana dagozkien arau sendoak ematea komeni. Garbiago esanik: ez bakarrik ez dut arau-emankizun xehe hori beharrezko ikusten, baizik eta honelako araurik oraingoz ez dela eman behar uste dut.

Badakit jarrera honek ate bat baino gehiago ixten dituela premia larriak datorkigun hainbat eskeri gogo-betean erantzuteko. Azken urteotan eramandako bidearen eskarmentuak hori eta gehiagorako arrazoibide eskaintzen digula uste dut ordea, eta ez noa hemen kontu-garbiketa luzeagoan sartzera.

Gure hitz-altxorren berritze-saioak inondik inora albora ezin utzi ditugula uste dut. Premia handia dugu, eta ezin geroko geroren esperoan utz ditzakegu, bertan behera, saiakuntza guzti horiek. Geure buruari engainuan hasia litzateke hori: gaurko euskaldun-jendeak, batez ere lanbidez euskaraz diharduenak (eta horiek hartu behar genituzke kontuan, inor hartzekotan, euskarari benetako gerorabiderik opa badiogu) nabarmenegiak ditu bere egunoroko bizitzan oraindai-nokoan inoiz landu gabeko gauzak euskaraz esateko beharrak sortzen dizkion neke-eragozpenak, kontu guzti horiek besterik gabe zori itsuaren menturapean uzteko. Berrikuntza-lanak babestu eta aitzinatu beharrak ditugu beraz, baina banakako hitzak oraingoz arauko babes-indarrez lortu gabe: gordinegi daude oraindik; alde-saihets askotatik maila horretako aztergai gehienak.

Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa egin beharra dago, ezer egiteko-tan, aldi honetan. Ea, hitz gutxitan, honi buruzko bizpahiru eritzi agertzen dudana:

a) Azken hogeit urteko euskara idatziaz eritzi franko etsia agertu du Ibon Sarasolak: epealdi honetan hitz bat asko erabili izana es omen da beretzat, gaizki ulertu ez badiot, hitz horri biz-inortasunik aitortzeko arrazoirik. Eritzi hori matizatu beharra ikusten dut, nik neuk, nere ustea agertzekotan. Bistan dago azken hogeit urteok aski berezi bihurri eta aldaketa-iturrizkoak izan direla, eta orain ere halatsu direla; zorabiozko ezin-egon hori aski arrazoi sendoa genuke, besteak beste, hitz sorberri edo azken orduko mailegu horiei euskal hitz-altxorren besterik gabe sarbide zabalik ez eskaintzeko. Punta bateko arriskuak ez du ordea, nere ustez, besterik gabe kontrako puntara joateko esku ematen: arriskua, ez nolana-hi-koa gainera, dagoela uste dut izan ere, bide horretan barrena abiatzen bagara,

eskueran daukagun hizkuntz ondarearen zati handi bat zigorpean jartzeko. Gaur egun hainbat esparrutan diharduten euskaldun alfabetatu gehienei urterik urteko ikaste-jardunaren ondoren eskuratutako hizkuntz eredu hori gaitzestetik ez dut uste, besterik gabe, kalte baino mesede gehiago letorkiekeenik.

Azken hogei-hogeitamar urteko euskalgintzak urratu dituen bideak, dudarik gabe izango dituzten akats-gabezia guztiekin ere, garrantzitsuegiak dira guztiontzat orain, argitasun handiagoak eskuratu-uste ditugula eta, zakarrontzira bota edo balio-urriturik alboratzeko.

Ikuspegi bi hauen artean balegoke agian erdibiderik, eta pozik ikusiko nuke hartarako zubigintza: azken 20 urteak ezezik 20. mendea osorik aztertzea izan daiteke, agian, elkarbide horretarako galga egokia.

b) Bilketa-lan hori era sistematiko batez egin beharra dago, ondorengo lanetarako balio izango badu: ezin ibil gaitzke, inoiz egin izan den bezala, gustatzen zaizkigunak jaso eta gainerakoak alde batera uzten. Eta ahalik erizpiderik bateratuenaz egin beharrak daude gainera, normahik egiten dituela ere, gerorantzean aztergai eta material bateragarriak eskueran izan nahi baditugu.

Horra beraz, halako xehetasun batez, gure hitz-ondarearen berrikuntza dela eta esan gogo nituenak esan.

Ez nioke nere azalpengintza honi amaiera eman nahi, dena dela, gaitik kanpora samarrean gelditzen bada ere funtsezkoa iruditzen zaidan uste-aburu bat agertu gabe:

euskararen hitz-altxorren berrikuntza askozaz eginbehar zabal eta bihurria-goa da, goian azalduabartzen saiatu naizenez, lexikografi lan hutsa baino. Gure ondokoei eskuratu nahi geniekeen euskara-moldearekin estu-estu lotua dagoelako, batetik; eta, bestetik, guztion euskaltzaletasunaren funtsa eta azken arrazoia euskararekiko berarekiko harrotasunean oinarritzen delako. Hizteggigile saiaturen buru-argitasunaz gainera bestelako faktore asko dira horrexegatik, kolpe huts egingo ez badugu, kontuan hartu beharrekoak: hiltun arruntaren itzaropen-gogoak eta ahalmenak, besteak beste.

Poetek hitz gutxitan esaten omen dakite, eta belarriari atsegin zaion eran, besteok jardun luzeaz eta era aspergarrian baizik adierazten ez dakiguna. Euskal olerkariak erdiz erdi asmatuz eta gogo-bihotzak hunkitzeko eran esana du, mende honetan, hizkuntzaren berrikuntzaz gehienok geure barren sakonean itsatsirik dugun izkutuko sentipen-gogoa. Zilegi bekit beraz, Lizardi handiaren eskutik, nere jakinaren gainean inongo hizkuntzaren berrikuntzaz inoiz egin den bideargitzerik mirarigarriena errepikatzea:

Baiña nik, izkuntza larrekoa
nai aunat ere noranaikoa;
yakite-egoek igoa;
soiña zaar, berri gogoa;
azal orizkta, muin betirakoa.

Asmatuko ahal dugu, denon artean eta Euskaltzaindiaren gidaritzapean, oro mintzozko amets hori egia bihurtzen.

Eskerrik asko.